AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3145

728/2012 EBAZPENA, ekainaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Ebazpen honen bidez, honako bi ebazpen hauek aldatu dira: batetik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 26ko 566/2012 Ebazpena; eta, bestetik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 11ko 618/2012 Ebazpena, hautatze-prozesuetarako kalifikazio-epaimahaiak izendatzeko dena, destinoa Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan duten hainbat kategoriatan pertsonal estatutarioaren egoerara heltzeko.

Indarrean dagoen legeriak emandako ahalmenen arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 26ko 566/2012 Ebazpena aldatzea, Administratibo Laguntzaile kategoriako kalifikazio-epaimahaiari dagokionez. Honako aldaketa hauek onartzen dira:

a) Iñaki Pérez Sanz jauna ordezko idazkaria izateko egin zen izendapena baliogabetzea.

b) María José Macías Sánchez andrea ordezko lehenengo bokala izateko egin zen izendapena baliogabetzea.

c) Miren Jasone Olabarrieta Lupiola andrea ordezko idazkari izendatzea.

Bigarrena.– Bi ebazpen hauek aldatzea: batetik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 26ko 566/2012 Ebazpena; eta, bestetik, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren maiatzaren 11ko 618/2012 Ebazpena, Zeladore kategoriako kalifikazio-epaimahaiari dagokionez. Honako aldaketa hauek onartzen dira:

a) María Aranzazu Corcuera Gamecho andrea ordezko idazkaria izateko egin zen izendapena baliogabetzea.

b) María Jesús Ortiz Amondo andrea ordezko bigarren bokala izateko egin zen izendapena baliogabetzea.

c) María Lourdes Muñoa Corral andrea ordezko idazkari izendatzea.

d) María Esmeralda Zubieta Tobío andrea ordezko bigarren bokal izendatzea.

Hirugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 26ko 566/2012 Ebazpena aldatzea, Erizain Laguntzaile kategoriako kalifikazio-epaimahaiari dagokionez. Honako aldaketa hauek onartzen dira:

a) María Carmen Delgado Ruiz andrea hirugarren bokal titularra izateko egin zen izendapena baliogabetzea.

b) María José Erice Elio andrea hirugarren bokal titular izendatzea.

c) María del Mar Aizpun Quintana ordezko hirugarren bokal izendatzea.

Laugarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren apirilaren 26ko 566/2012 Ebazpena aldatzea, Administrari kategoriako kalifikazio-epaimahaiari dagokionez. Honako aldaketa hauek onartzen dira:

a) María Jesús Goicoechea Zubizarreta andrea ordezko hirugarren bokala izateko egin zen izendapena baliogabetzea.

Bosgarrena.– Ebazpen hau EHAAn argitaratzeko agintzea.

Seigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak onartu zituen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren 22. oinarrian ezarritakoaren arabera, ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari, hilabeteko epean, EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 7a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.